

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### **Behin betiko onartzea landa ondasun higiezin gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2016ko errola**

Nik, Josune Irabien Marigortak, Amurrio Arabako Udaleko alkate naizen honek (Amurrio, Araba)

Jakinarazten dut:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen behin-behineko onarpena ematea landa ondasun higiezin gaineko zerga ordaindu behar dutenen eroldari (1610C2112 espedientea), eta erabakia 2016ko ekainaren 29ko ALHAOn argitaratu zen (73. zk.); haren aurka ez da erreklamaziorik aurkeztu, eta beraz, erabaki hori behin betiko bihurtu da, eta hala jakinarazten da jendaurrean, Arabako Zergen Foru Arau Orokorren 98.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa).

Beraz, 2016ko azaroaren 1a eta abenduaren 31 bitartean (biak barne), borondatezko epean ordaindu ahal izango dira landa ondasun higiezin gaineko zergari dagozkion 2016ko errezi-boak.

Tasa hori ordaindu behar dutenek zerga zorra Laboral Kutxak Amurrion dituen bulegoetan (Mendiko kalea, 1) ordaindu ahal izango dute, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 10:30era, adierazitako epean.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kuotari ehuneko 20ra arteko errenergua aplikatuko zaio, indarrean dagoen Zerga bilketarako araudi Orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorritik; errenergua hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2016ko abuztuaren 17a

*Alkatea*

**JOSUNE IRABIEN MARIGORTA**